

ENERGIAREN KLUSTERRA

Sozietatearen izena

Asociación de Promoción e Investigación "Cluster de Energía"

IFK

G48888895

Izaera

Elkartea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

1996ko azaroaren 21ean eratu zen entitatea, sustapen eta ikerketako elkarte gisa eta 1997ko martxoaren 10ean inskribatu zen Elkartearen Erregistroan, [1997ko apirilaren 15eko ERABAKIAN, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak Elkartearen Erroldan joan den martxoan egin diren sarrerak eta oharrak argitaratzeko emandakoan](#), jasota dagoen bezala.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

8299 Beste inon sailkatu gabeko enpresen laguntzarako beste jarduera batzuk.

Fundazioaren xedea eta helburua

Elkartearen helburu nagusia da elkarteko bazkide diren enpresen lehiakortasuna hobetzea, energiaren alorreko teknologien, konpetentzien eta merkatuen inguruko jardueretan lankidetzatza bultzatuta. Helburuei jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ditu jarduera gehienak.

Sailkapena kontabilitate nazionalean

Sozietate ez-finantzarioak: pribatuak.

Sozietatearen Funtsa

419.498 €

Bazkideak

Hasieran Sozietatearen Funtsik gabe eratu zen entitatea. Orain daukan Sozietatearen Funtsa bazkideen ekarpenekin osatuz joan da, sortu izan diren defizitekin murriztuz eta lortutako superabitekin emendatuz, elkartea sortu zenetik.

Energiaren klusterrak [100 bazkidetik gora](#) ditu, eta ohorezko bazkide da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo saila. Bazkide fundatzaileetako bat Energiaren Euskal Erakundea da.

Bazkideen Batzar Orokorra, bazkide guztiek osatua, bazkideen borondatea adierazteko organoa da, eta gainera elkartearen gobernu eta administrazioko organo gorena.

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	634.872 €
Ondare garbia	421.491 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	0 €
Batez besteko langile-kopurua	3,79

Sozietatearen helbidea

San Bizente, 8, Albia I eraikina, 2., 48001 Bilbo (Bizkaia).

Webgunea

www.clusterenergia.com